



irura

AISIALDIRAKO
2022 **GiDA**

EKAINA JUNIO



EKAINAK 10 JUNIO
"SUAK HARROTUZ"



03/ ostirala *viernes* **18:00** Elizan Iglesia
ONINTZA ABESBATZAREN EMANALDIA
ACTUACIÓN DEL CORO ONINTZA

- Publiko guztia *Todos los públicos.*

05/ igandea *Domingo* **18:30** Frontoian Frontón
FRONTONA ANTZEZLAN INTERAKTIBOA
TEATRO INTERACTIVO FRONTONA

Ezohiko ikuskizuna, herriko frontoia bilakatzen da antzezleku. Balio pedagogikoa duen sorkuntza da, publikoari Euskal Herriko kultura zabalean murgiltzeko aukera eskaintzen diona.

Bi pilotari kantxan pilota-partida jokatzeko; kontrakantxan, epailea, arteariak, esatariak..., partida 22 tantora izan arren, ikusleak izango dira antzezlaren protagonistak.

Un espectáculo inusual donde el frontón del pueblo se convierte en escenario. Se trata de una creación con gran valor pedagógico que brinda al público la oportunidad de sumergirse en la inmensidad de la cultura de Euskal Herria. Dos pelotaris jugando un partido de pelota en la cancha; en la contracancha, un árbitro, un Interventor, locutores..., aunque el partido discurra hasta 22 tantos, los espectadores serán los protagonistas de la obra.



08, 15, 22, 29 eta
uztailak julio 6, 13, 20 eta 27

asteazkenetan *miércoles* **19:00-20:00** Plaza San Migel plazan

TXAKUR JABE EREDUGARRI IZATEKO FORMAZIO-SAIOAK

SESIONES DE FORMACIÓN PARA CONVERTIRSE EN PROPIETARIA/O EJEMPLAR DE PERROS

Txakurra eta jabeaz osaturiko zortzi bikotek txakurren trebakuntzan espezializatutako Kangune zentroko aditu baten laguntza jasoko dute.

Kale-heziketa izango da saio hauetako gai nagusia, txakurrek eta jabeek, hiri-eremuan elkarbizituen ikasteko.

Ikastaroa doakoa da eta parte hartzeko ekainaren 1a baino lehen izena ematea beharrezkoa da

(ingurumena@irura.eus / 688 618 544). Plaza mugatuak.

Ocho parejas formadas por perro y propietaria/o recibirán la ayuda de un/una experto/a del centro Kangune Especializa-do en adiestramiento canino.

El tema central de estas sesiones será La educación de calle, en las que perros y propietarios aprenderán a convivir en el espacio urbano. El curso es gratuito y para participar es necesario inscribirse antes del 1 de junio (ingurumena@irura.eus/688 618 544). Plazas limitadas.

- Euskaraz *Euskera.*
- Txakurra duten Irurako biztanleak
Habitantes de Irura con perro.

10/ ostirala *Viernes* **17:00**
 Irurako hiru berdegunetan (Plazatik gertu)
En tres zonas verdes de Irura (cerca de la Plaza)

“SUAK HARROTUZ”
IBILBIDE ANTZEZTUA, SOLSTIZIOA, OHITURAK
ETA EMAKUMEEN LANA BALOREAN JARTZEKO
“SUAK HARROTUZ”
UN RECORRIDO TEATRALIZADO PARA PONER EN VALOR EL SOLSTICIO, LAS COSTUMBRES Y EL TRABAJO DE LAS MUJERES

Hiru gune izango dituen ibilbidea, naturarekin bat egin, behaketan trebatu eta gizakion, eta bereziki, emakumeen jakintza eta gaitasunak ikusarazteko aitzakia da, ahalduntzean naturarekiko konexio eta ezagutzak duen garrantzia azpimarratuz.

El recorrido, que contará con tres espacios, es una excusa para unirse a la naturaleza, formarse en la observación y visibilizar el saber y las capacidades de los seres humanos, y especialmente de las mujeres, haciendo hincapié en la importancia de la conexión y el conocimiento con la naturaleza en el empoderamiento.

- Euskaraz *En euskera.*
- Publiko familiarra (10 urte azpikoak heldu batek lagundurik).
Público familiar.
(Menores de 10 años acompañados por un adulto).
- Gonbidapena eskatzen du *Se requiere invitación.*
- 45 minutuko txandak izango dira, txanda bakoitzean gehienez 20 pertsona. *Habrán turnos de 45 minutos con un máximo de 20 personas por turno.*



16/ osteguna *Jueves* **18:00**
 Kulturunean *Centro Cultural*
ANTZERKI TAILERREKO IKASLEEN EMANALDIA
ACTUACIÓN DE LOS ALUMNOS DEL TALLER DE TEATRO

- Euskaraz *Euskera.*
- Publiko guztia *Todos los públicos.*

20/ astelehena *lunes* **16:30**
 Herri eskolako aretoan *Sala de la Herri Eskola*

ODOL EMATEAK
DONACIONES DE SANGRE

Lagundu biziarri, eman odola!
 20 goizean 943007884 telefonora deitu eta hitzordua eskatu beharko da. (Irurako Odol Emaleen Elkarrekin antolatuta)
¡Ayuda a la vida, dame sangre!
El día 20 por la mañana habrá que llamar al teléfono 943007884 y pedir cita previa.
(Organizado por la Asociación de Donantes de Sangre de Irura).



21/ asteartea martes 18:00Herri eskolako aretoan *Sala de la Herri Eskola***ETXEKO KONTSUMOA TARIFA ELEKTRIKO BERRIETARA EGOKITZEN IKASTEKO SAIO PRAKTIKOA****SESIÓN PRÁCTICA PARA APRENDER A ADAPTAR EL CONSUMO DOMÉSTICO A LAS NUEVAS TARIFAS ELÉCTRICAS**

Energia Argitu programaren baitan, etxeke kontsumoa tarifa elektriko berrietara nola egokitu ikasteko eta hortik abiatuz erabaki egokiak hartzeko balio duen tailerra.

Tailer honetan parte hartu nahi duten herritarrek, ekainaren 17a baino lehen izena ematea beharrezkoa da. Horretarako, honako bideak erabil daitezke:

Posta elektronikoz argitu@gipuzkoa.eus

Telefonoz: 628-532-248

(astelehenetik ostiralera. Orduetgia 9:00-18:00)

Informazio osagarria: www.argitu.eus

Taller impartido dentro del programa Energía Argitu, que sirve para aprender cómo adaptar el consumo doméstico a las nuevas tarifas eléctricas y a partir de ahí, tomar las decisiones oportunas. Para participar en este taller, es necesario inscribirse antes del 17 de junio. Para ello, se pueden utilizar los siguientes medios: e-mail: argitu@gipuzkoa.eus, Teléfono: 628-532-248 (De lunes a viernes. Horario 9:00 - 18:00)

Información com-plementaria: www.argitu.eus.

21/ asteartea martes 18:30 Liburutegian *Biblioteca***IRAKURLE TALDEA****GRUPO DE LECTURA**

Patxi Zubizarretaren "Eztia eta ozpina" eleberriaz solastuko gara oraingoan. Idazlea saioan izango da. Anima zaituz!

Esta vez hablaremos de la novela "Eztia eta ozpina" de Patxi Zubizarreta. El escritor estará presente. ¡Anímate!

- Euskaraz *En euskera.*
- Helduak *Adultos.*

(Irakurle taldeak antolatuta *Organizado por el grupo de lectura*)

23/ osteguna Jueves 19:00Herrian zehar *Por las calles del pueblo***LOATZO MUSIKA ESKOLAKO TXISTULARIEN KALEJIRA****CALEJIRA DE TXISTULARES****DE LA ESCUELA DE MÚSICA LOATZO****23/ osteguna Jueves 20:00** Plaza San Migel plazan**SAN JUAN BEZPERA****VÍSPERA DE SAN JUAN**

Barrikotea, sua piztea, Lats dantza taldea eta Onintza abesbatza. Barrikote, hoguera, actuaciones del grupo de danzas Lats y del coro Onintza.

- Publiko guztia *Todos los públicos-*
- Oharra: Barrikoterako mahaiak eta sagardoa Udalak jarriko ditu. *Nota: las mesas para el barricote y la sidra las aportará el Ayuntamiento.*

27 eta 28/ 16:30-19:00Herri eskolako aretoan *Sala de la Herri Eskola***OPIL ETA MUXILEN BINETAK-ERAKUSKETA EXPOSICIÓN DE VIÑETAS DE TORTAS Y BOLLOS**

Erakusketaren izena, Ozeano Atlantikoaren alde bietan erabiltzen ziren bi termino (Torta Argentinan, Bollo Espainian) mespretxagarriren elkartzetik dator. Garai batean emakume lesbianak diskriminatzeke balio zuten eta haiek, aldarrikapen gisa, bereak egin dituzte.

Emakume lesbianek Latinoamerikan zein estatu espainiarrean egunerokoan bizi dituzten egoera surrealista umorez erakusten dituzten hamar istorioekin osatutako erakusketa da. Kolaboratzaileak: Gehitu, Mugen Gaietik, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia *El nombre de la exposición proviene de la asociación de dos términos despreciables que se utilizaban a ambos lados del océano Atlántico (Torta en Argentina, Bollo en España). Antiguamente servían para discriminar a las mujeres lesbianas y ellas, como reivindicación, las han hecho suyas.*

Muestran con humor las situaciones surrealistas que viven las mujeres lesbianas en el día a día tanto en Latinoamérica como en el estado español.

Se trata de una exposición con diez historias. Colaboran: Gehitu, Mugen Gaietik, Diputación Foral de Gipuzkoa y Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

- Euskaraz *En euskera.*
- Publiko guztia *Todos los públicos.*

(Irura Moretuz elkarteak antolatuta

Organizado por la asociación Irura Moretuz).

27/ astelehena lunes 19:30Kulturunean *Centro Cultural***ESNATU NAIZ KABARETA CABARET "ESNATU NAIZ"**

Duela 10 urtera arte bere familiarekin baserrian bizi zen Elurrek, Londresko The Pink Flamingo klubean bere showa du. Nola demontre lortu du baserriar euskaldun honek trans kolektiboko modako artista izatea Londresen? Zer bizipen izan ditu Elurrek azken 10 urte hauetan? Eta zergatik da Beyoncé guzti honen erruduna? Esnatu Naiz antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen showa da. Identitate, giza-harremanak eta sexualitatea ditu hizpide. Gizartean errotuta dauden hainbat ohitura eta arau zalantzan jartzeaz gain, LGBTI+ komunitatearen eskubideen aldeko mezua zabaldu nahi du.

Lur, que hasta hace 10 años vivía con su familia en la granja, tiene su show en el club londinense The Pink Flamingo. ¿Cómo demontre ha conseguido este granjero vasco ser artista de moda del colectivo trans en Londres? ¿Qué vivencias ha tenido Lur en estos últimos 10 años? ¿Y por qué Beyoncé es culpable de todo esto?

"Esnatu Naiz" es un show que mezcla teatro, danza y música. Identidad, relaciones humanas, y habla de sexualidad.

Además de cuestionar diversas costumbres y normas arraigadas en la sociedad, pretende lanzar un mensaje a favor de los derechos de la comunidad LGBTI+.

- Euskaraz *En euskera.*
- Gazte eta helduak *Jóvenes y adultos.*

29/ asteazkena Miércoles 16:30 -19:30

Kulturunean Centro Cultural

ZARATA-AUDIOGIDA**AUDIOGUÍA ZARATA/RUIDO**

ZARATA proiektuak LGBTI+ kolektiboaren inguruan kontzientzia sortzea du helburu. Museo batean aurki daitekeen audiogida moduko bat da, baina kasu honetan pisu nagusia entzumenak berak du, ez ikusmenak. Partaide bakoitzak bere mugikorrarekin QR kode bat irakurtzen du eta aurikularak edota kaskoak erabiliz 45' inguruko ibilbide bat egingo du. Audio horretan LGBTI+ kolektiboaren parte diren hamar euskal artisten ahotsak entzungo dira.

El proyecto Zarata busca crear conciencia en torno al colectivo LGBTI+. Es una especie de audioguía que se puede encontrar en un museo, pero en este caso el foco principal está en el propio oído, y no en la vista. Cada participante lee con su móvil un código QR y utilizando auriculares o cascos, realizará un recorrido de 45 minutos aproximadamente. En ese audio sonarán las voces de diez artistas vascos que forman parte del colectivo LGBTI+.

- Euskaraz eta gaztelaniaz *En euskera y castellano.*
- +18 urte años
- Norberak bere kaskoak edo aurikularak ekartzea komeni da. *Conviene que cada cual traiga sus cascos o auriculares.*

(Organizado por Irura Moretuz elkarteak antolatuta)

30/ osteguna Jueves 19:00

Herri eskolako aretoan Sala de la Herri Eskola

DEATH-CAFE: HERIOTZAZ ETA DOLUAZ HITZ EGITEKO GUNEA**DEATH-CAFE: ESPACIO PARA HABLAR DE LA MUERTE Y EL DUELO**

Arau eta lokaririk gabe heriotzaz hitzegiteko lekua. Bihotzetik elkarteko kide batek bideratuko du.

Lugar para hablar de la muerte sin reglas ni ataduras. Lo canalizará un miembro de la asociación Bihotzetik.

- Ele bitan *Bilingüe.*
- + 16 urte años
- Gonbidapena eskatzen du (gehienez 15eko taldea) *Se requiere invitación (máximo grupo de 15).*

(Organizado por Irura Bizi elkarteak antolatuta)

Uztailak 02 de julio

larunbata sábado Plaza San Migel plazan

UZTA GIRO FESTA-EGUNA**DÁ DE FIESTA UZTA GIRO**

Herriko hainbat eragileren artean osatutako egun osoko egitarau oparoa izango dugu (umeentzako jolas parekideak, xare-partida, bertso-triki-poteoa, herri-bazkaria, DJ Bull eta askoz ere gehiago...)

Xehetasunak aurrerago jakinaraziko ditugu, baina gorde eguna zuen agendetan. Animatu!!! Ederki pasako dugu!!!

(Irura Bizi elkarteak sustatuta)

Contaremos, durante todo el día, con un completo programa de actividades (juegos infantiles paritarios, partido de share, bertso-triki-poteo, comida popular, DJ Bull y mucho más).

Los detalles los daremos a conocer más adelante, pero guardaos el día en vuestras agendas. ¡¡¡Anímaos!!! ¡¡¡¡¡Lo pasaremos en grande!!!! (Promovida por Irura Bizi Elkarteak)

“IRURARRAK MUNDUAN” UDAKO POSTAL LEHIAKETA**CONCURSO DE POSTALES DE VERANO “IRURARRAS POR EL MUNDO”****Ekainaren 15etik irailaren 15era****Del 15 de junio al 15 de septiembre**

Urrutiko bazterrek nahiz gertukoak, edozein dela ere zure helmuga, euskara bidelagun ona izango duzu.

Zauden tokian zaudela, postaltxo bat hartu eta zer moduz zabiltzan kontatuz bidali guri: euskaraz, noski!

Tanto los rincones más lejanos como los de cerca, sea cual sea tu destino, tendrás un buen compañero de viaje: eL euskera.

Estés donde estés, coge una postal y mándanosla contándonos qué tal andas: ¡en euskera, claro!

Sariak Premios:

14 urte azpikoentzat: Sendaviva Nafarroako Natur Parkerako bi sarrera.

Gainerakoentzat: nekazaturismo batean gaua eta gosaria bi lagunentzat.

Zozketa bidez aukeratuko ditugu postal-irabazleak! Zozketa San Migel eguneko hamaietakoan egingo da.

Para menores de 14 años: dos entradas para el Parque Natural de Navarra Sendaviva.

Para el resto: Estancia de una noche y desayuno para dos personas en un agroturismo .

¡Seleccionaremos por sorteo las postales ganadoras! El sorteo se realizará en el hamaietako del día de San Miguel.

Baldintzak Requisitos:

- Euskaraz zerbait kontatzea. *Contar algo en euskera.*
- Bidali duzun lekuko zigilua izatea. Edozein lekutakoa, Irurakoa izan ezik. *Tener el sello del lugar del que ha sido enviado. De cualquier lugar menos de Irura.*
- Ekainaren 15etik irailaren 15era bitarteko zigilua izatea. *Haber sido sellado del 15 de junio al 15 de septiembre.*
- Pertsona bakoitzeko postal bat zenbatuko da. *Se computará una postal por persona.*
- Bidaltzailearen datu hauek jarri beharko dira: izen-abizenak, adina eta harremanetarako bidea (telefonoa edo e-maila). *Los datos del remitente serán los siguientes: Nombre y apellidos, edad y canal de contacto (teléfono o e-mail).*
- Postalak bidaltzeko helbidea *Dirección de envío de postales:*

ASOCIACIÓN IRURA BIZI ELKARTEA

Kultura Bulegoa Gazte eta Kulturunean

Oficina de Cultura y juventud y Centro Cultural

Pello Arrese Kalea, 1

20271 IRURA Gipuzkoa

(Organizado por la asociación Irura Bizi elkarteak antolatuta)



BIGARREN ESKUKO AZOKA: POSTUA JARRI NAHI?

¿QUIERES PONER UN PUESTO EN EL MERCADO DE SEGUNDA MANO?

Irura Bizi elkarteak bigarren eskuko azoka antolatu nahi du. Azokan postua jarri nahiko zenuke? Material gutxi izan arren, animatu! Interesa duenak idatzi irurabizi@gmail.com helbidera. Ondoren, interesa dutenekin harremanetan jarriko gara bigarren eskuko azoka antolatzeko.

La asociación Irura Bizi quiere organizar un mercadillo de segunda mano. ¿Te gustaría poner un puesto? A pesar de la escasez de material, ¡anímate!

Quien esté interesado puede escribir a irurabizi@gmail.com.

Después nos pondremos en contacto con las y los interesadas/os para organizar el mercado de segunda mano.

(Organizado por Irura Bizi elkarteak antolatuta).

‘NATURA’, 2023KO EGUTEGIA OSATZEKO GAIA

NATURALEZA, TEMA PARA COMPLETAR EL CALENDARIO 2023

2023ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketarako gaia ‘NATURA’ izango da. Urtero bezala, adin guztietako herritarrek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Lanak aurkezteko epeak eta lehiaketaren oinarriak aurrerago emango dira jakitera, baina dagoeneko irurarrak argazkiak ateratzen eta prestatzen has daitezke.

El Tema del concurso fotográfico para completar el calendario 2023 será la naturaleza.

Como todos los años, podrán participar en el concurso vecinas y vecinos de todas las edades. El Plazo de presentación de los trabajos y las bases del concurso se darán a conocer más adelante, pero ya las y los irurarras pueden empezar a sacar fotografías y a prepararse.

Gogoan izatekoak Requisitos a tener en cuenta:

- Argazkiak koloretan eta Irurako lekuren batean ateratakoa izan behar du. *La fotografía debe haber sido tomada en color y en algún lugar de Irura.*
- Argazkiak formatu etzana eta gutxieneko kalitatea izan beharko du. *La fotografía deberá tener un formato apaisado y una calidad mínima.*

Animatu!!!! Ez utzi azkenerako!

Anímate!!!! ¡No lo dejes para el ultimo momento!

(Organizado por Irura Bizi elkarteak antolatuta)



EKAINAK 28, LGTBIQ+ PERTSONEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

28 DE JUNIO,
DÍA INTERNACIONAL DE
LOS DERECHOS DE LAS
PERSONAS LGTBIQ+

NOTA

Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la **oficina de cultura**



euskara



**Irurako
udala**



kultur
mahaia



castellano